



|                           |   |                         |
|---------------------------|---|-------------------------|
| 1. deitura/1er apellido   | Titulazioa/Titulación<br>Industria Teknologien<br>Ingeniaritzako Gradua |                         |
| 2. deitura/2º apellido    | Ikasgala/Asignatura<br>ELEKTRONIKA                                      |                         |
| Izena/Nombre              | OROKORRA  |                         |
| Ikasturtea/Curso          | Taldea/Grupo  | Data/Fecha              |
| 3.                        |   | 2017ko urtarrilaren 19a |
| Kalifikazioa/Calificación |   |                         |

## TEORIA (4 puntu)

Irudiaren zirkuituan, diodoen atalase tentsioak  $V_f = 0,7 \text{ V}$  dira:

- (1) 1. Adierazi D<sub>1</sub> eta D<sub>2</sub> diodoen egoerak (ebakidura/eroaten).

D<sub>1</sub> EBAKIDURAN

D<sub>2</sub> EROATSEN

- (2) 2. Kalkulatu bi diodóen polarizazio puntua ( $I_{D1} V_{D1}, I_{D2} V_{D2}$ ).

$$I_{D1} = 0 \text{ A}; V_{D1} = 0,35 \text{ V} (< V_f)$$

$$I_{D2} = 0,965 \text{ mA}; V_{D2} = 0,7 \text{ V}$$

- (1) 3. Kalkulatu  $V_{O1}$  tentsioaren balioa.


$$V_{O1} = -\frac{0,7 \text{ V}}{2} = -0,35 \text{ V}$$

- (1) 4. pnp motako transistore bipolarraren kasurako, bete ezazu ondoko taula:

| Igorle-junturaren polarizazioa | Kolektore-junturaren polarizazioa | Lan-gunea     |
|--------------------------------|-----------------------------------|---------------|
| Alderantzizkoa                 | Alderantzizkoa                    | EBAKIDURA     |
| Alderantzizkoa                 | Zuzenekoa                         | ALDERANTZIZKO |
| Zuzenekoa                      | Alderantzizkoa                    | ALSTIBOA      |
| Zuzenekoa                      | Zuzenekoa                         | ASUSTASUNA    |

SUST ALSTIBOA

- (3) 5. Irudiaren zirkulturako,  $I_c$ -ren espresioa lortu, zirkuituaren tentsioen eta erresistentzien funtzio gisa, lan-gune aktiboan. Zein baldintza bete behar da,  $I_c$  transistorearen  $\beta$ -ren funtzioa ez izateko?



$$I_c = \beta I_B$$

$$V_{BB} = R_B \cdot I_B + V_{BEON} + R_E \cdot I_E$$

$$I_c = (V_{BB} - V_{BEON}) \frac{\beta}{R_B + R_E(1+\beta)}$$

$$R_B \ll R_E(1+\beta) \rightarrow I_c \approx \frac{V_{BB} - V_{BEON}}{R_E}$$

Irudiaren zirkuituaren amplifikadore operacionala ideal da eta  $+15$  V eta  $-15$  V tentsioekin elikatzen da. Zirkuituaren helburua da irteeran  $V_o = 3V_A + 5$  lortzea.

- (1) 6. Lortu  $V_{ref}$  tentsioaren balioa.

$$V_o = -\frac{R_2}{R_1} V_{REF} + \frac{R_1 + R_2}{R_1} V_A$$

$$\frac{R_1 + R_2}{R_1} = 3 \rightarrow \frac{R_2}{R_1} = 2 \rightarrow V_{REF} = -2,5 \text{ V}$$

- (1) 7. Lortu  $R_1$  eta  $R_2$  erresistentziaren balioak.

$$R_2 = 2R_1 \rightarrow R_1 = 1 \text{ k}\Omega \text{ bada, orduan } R_2 = 2 \text{ k}\Omega$$

Baldin eta  $V_A = 5$  V bada:  $V_o = 3 \cdot 5 + 5 = 20$  V; ezinezkoan:  $V_o = 15$  V

- (1) 8. Kalkulatu  $V_o$  tentsioaren balioa.

$$\text{AO asestasunean} \rightarrow V_o = V_{cc} = +15 \text{ V}$$

- (1) 9. Kalkulatu  $V_B$  tentsioaren balioa.

$$V_B = -2,5 \text{ V} + \frac{15 + 2,5}{3 \text{ k}\Omega} \cdot 1 \text{ k}\Omega = 3,33 \text{ V}$$

Irudian erakusten den zirkuitua ate logiko baten zirkuitu balioidea da.

- (1) 10. Zein motatako da  $Q_1$  transistorea? Eta  $Q_3$  transistorea?


$Q_1$ : n kanaleko ugaltze MOSFET-a

$Q_3$ : p kanaleko ugaltze MOSFET-a

A eta B sarrerak aldagai logikoak dira, zeinetan "1" logikoa 5 V-eko tentsioari dagokion, eta "0" logikoa 0 V-eko tentsioari.

- (2) 11. Bete ondoko taula, transistoreen egoerak adieraziz, -ebakidura (OFF), edo eroaten (ON)-, sarreren egoeren konbinaketa bakoitzerako:

| A | B | 01  | 02  | 03  | 04  | F |
|---|---|-----|-----|-----|-----|---|
| 0 | 0 | OFF | OFF | ON  | ON  | 1 |
| 0 | 1 | ON  | OFF | OFF | ON  | 1 |
| 1 | 0 | OFF | ON  | ON  | OFF | 1 |
| 1 | 1 | ON  | ON  | OFF | OFF | 0 |




- (2) 12.  $F = f(A, B)$  funtzio logikoaren adierazpena lortu, eta ate logikoa marraztu.

$$F = \overline{A \cdot B}$$



- (2) 13. Implementatu ondoko hiru sarrerako funtziogoa, 4:1 multiplexadore bat erabiliz.

$$f(A, B, C) = (\bar{A} + \bar{C})(\bar{B} + C)$$




| A | B | C | f |
|---|---|---|---|
| 0 | 0 | 0 | 1 |
| 0 | 0 | 1 | 1 |
| 0 | 1 | 0 | 0 |
| 0 | 1 | 1 | 1 |
| 1 | 0 | 0 | 1 |
| 1 | 0 | 1 | 0 |
| 1 | 1 | 0 | 0 |
| 1 | 1 | 1 | 0 |

$X_1 \ X_0$

{ 1  
C  
-C  
0  
I

- (2) 14. Bete ezazu irudian agertzen den biegonkorren egia-taula.



| Sarrerak |       |       |     |     | Irteerak    |                 |
|----------|-------|-------|-----|-----|-------------|-----------------|
| $S_d$    | $R_d$ | $CLK$ | $J$ | $K$ | $Q_{n+1}$   | $\bar{Q}_{n+1}$ |
| 1        | 0     | X     | X   | X   | 0           | 1               |
| 0        | 1     | X     | X   | X   | 1           | 0               |
| 1        | 1     | ↑     | 0   | 0   | $Q_n$       | $\bar{Q}_n$     |
| 1        | 1     | ↑     | 0   | 1   | 0           | 1               |
| 1        | 1     | ↑     | 1   | 0   | 1           | 0               |
| 1        | 1     | ↑     | 1   | 1   | $\bar{Q}_n$ | $Q_n$           |



Kontuan hartuta ondoko funtziogoa:

$$f = B \cdot \bar{C} \cdot \bar{D} + B \cdot \bar{C} \cdot D + \bar{A} \cdot \bar{B} \cdot C + A \cdot B \cdot C + A \cdot \bar{B} \cdot C$$

- (2) 15. Simplifikatu Karnaugh-en diagramma erabiliz.

- (1) 16. Marraztu simplifikatutako funtziogaren zirkuitua.

$$f = \bar{B}C + \bar{B}\bar{C} + AC = B \oplus C + AC$$



- (1) 17. Zenbat  $4:1$  multiplexadore behar dira  $16:1$  multiplexadore bat implementatzeko? 5 (4+1)

GOGORATZEN DA BEHARREZKOA DELA AZTERKETAREN ZATI BAKOITZEAN (TEORIA ETA PROBLEMAK) 10 PUNTUTATIK 5 LORTZEA BI NOTEN BATEZBESTEKO EGITEKO, IRAKASGAIA GAINDITU AHAL IZATEKO.



|                         |   |                           |
|-------------------------|---|---------------------------|
| 1. deitura/1er apellido | Titulazioa/Titulación<br>Industria/Teknologiaren<br>Ingeniaritzako Gradua |                           |
| 2. deitura/2º apellido  | Ikasgaila/Asignatura<br>ELEKTRONIKA<br>OROKORRA                           |                           |
| Izena/Nombre            | Data/Fecha<br>2017ko urtarrilaren 17a                                     |                           |
| Ikasturtea/Curso        | Taldea/Grupo  | Kalifikazioa/Calificación |
| 3.                      |   |                           |

## PROBLEMAK (6 puntu)


### 1. PROBLEMA (2 puntu)

Irudian erakusten den diseinuaren helburua da U3 errelearen kommutazioa kontrolatzea, R20 erresistentzian ezartzen den S seinalearen bidez.

Errelea aktibatuta dagoen bitartean, LED9 piztuta egongo da.

Gailuen ezaugarriak honako hauek dira:

- Zirkuitua 9 V DC-rekin elikatzen da.
- S seinalea 0 V (errelea irekitzeko) edo 9 V (errelea ixteko) izan daiteke.
- BC547B-ren  $V_{CE(sat)}$  0,2 V da.
- BC547B-an:  $V_{BE(ON)} = V_{BE(Sat)} = 0,7$  V.
- BC547B transistorearen espezifikazio-orriak dio  $h_{FE}$  ( $\beta$ )-ren bálio minimoa 200 dela, eta maximoa 800.
- LED9-k ondo argitzeko, haren bidez 10 mA-ko korrontea pasatu behar da, eta baldintza horietan led-aren  $V_{D(ON)}$  2 V da.



Errelearen (RM50N) espezifikazio-orriean honako taula hau agertzen da:

### RM50N miniature relays

Coil data - DC voltage version

Table 1

| Coil code | Rated voltage<br>V DC | Coil resistance<br>at 20 °C<br>$\Omega$ | Acceptable<br>resistance | Coil operating range<br>V DC |                 |
|-----------|-----------------------|---|--------------------------|------------------------------|-----------------|
|           |                       |   |                          | min. (at 20 °C)              | max. (at 20 °C) |
| 1005      | 5                     | 70                                      | $\pm 10\%$               | 3,75                         | 6,5             |
| 1009      | 9                     | 225                                     | $\pm 10\%$               | 6,75                         | 11,7            |
| 1012      | 12                    | 400                                     | $\pm 10\%$               | 9,00                         | 15,6            |
| 1024      | 24                    | 1 600                                   | $\pm 10\%$               | 18,00                        | 31,2            |
| 1048      | 48                    | 6 400                                   | $\pm 10\%$               | 36,00                        | 62,4            |

- Adierazi itzazu erabili behar den errelearen "Coil code" delakoa eta errelearen erresistentzia balioakidea, aktibatuta dagoenean.

Coil Code = 1009

Erresistentzia ( $\Omega$ ) = 225  $\Omega$

2. Kalkulatu R<sub>21</sub> erresistentziaren balioa.

$$R_{21} = 680 \text{ }\Omega$$

$$V_{CE} = 0,2 \text{ V} ; I_{LED} = \frac{9 - 0,2 - 2}{R_{21}} = 10 \text{ mA} \rightarrow R_{21} = 680 \text{ }\Omega$$

2. R<sub>20</sub> erresistentziaren balio maximoa kalkulatu, bermatzeko errelea aktibatzen dela S seinalearen balioa 9 V denean, Q<sub>2</sub> transistorea asetasunean jarri.

$$R_{20} = 33,8 \text{ k}\Omega$$

$$I_{R20} = \frac{9 - 0,2}{225 \Omega} = 39,11 \text{ mA}$$

$$I_c = 39,11 \text{ mA} + 10 \text{ mA} = 49,11 \text{ mA}$$

$$I_B = \frac{9V - 0,7V}{R_{20}} > \frac{I_c}{\beta_{min}} ; R_{20} < \frac{200(9-0,7)}{49,11 \text{ mA}} = 33,8 \text{ k}\Omega$$

Zirkuitua muntatzen dugu R<sub>20</sub> = 68 kΩ izanik. S seinaleren balioa 9 V denean, honako neurketa hauek egiten ditugu, TP5 eta TP6 puntuétan: TP5 = 0,68 V; TP6 = 1,5 V. Baldintza hauetan:

3. Zein da transistorearen lan-gunea?

LAN-6 UNIBESTITUTUA

$$V_{CE} = 1,5 \text{ V} > V_{CESAT}$$

4. Kalkulatu transistorearen korronteak:

$$I_B = \frac{9 - 0,68}{68 \text{ k}\Omega} = 122,4 \mu\text{A}$$

$$\left. \begin{array}{l} I_{LED} = \frac{9 - 2 - 1,5}{680} = 8,09 \text{ mA} \\ I_{R20} = \frac{9 - 1,5}{225} = 33,3 \text{ mA} \end{array} \right\} \begin{array}{l} I_C = 41,4 \text{ mA} \\ I_E = 41,52 \text{ mA} \end{array}$$

$$I_B = 122,4 \mu\text{A}$$

$$I_C = 41,4 \text{ mA}$$


$$I_E = 41,52 \text{ mA}$$

5. Kalkulatu Q<sub>2</sub> transistorearen β:

$$\beta = 338$$

$$\beta = I_C / I_B$$

2. PROBLEMA (2 puntu)



Ondoko irudian erakusten den zirkuituak laba baten temperatura neurten du, eta LED diodo bat pizten du, desiratutako temperatura lortzen denean. Temperatura sentsoarekin lineal bidez neurten da; sentsore horrek temperaturarekiko proportzionala den tentsio bat ematen du,  $V_{SENS} = k \cdot T$ , non  $k = 10 \text{ mV}/^\circ\text{C}$  eta  $T^\circ\text{C}$ -tan neurten den.

1. Kalkulatu  $V_{01} = f(V_1, V_2, R_1, R_2)$  esprésioa:

$$V_{01} = \frac{R_2}{1,5k\Omega} \cdot (V_1 - V_2)$$

Amplifikadore diferenciala:

$$V_{01} = V_{SENS} \cdot \frac{R_2}{R_1} = \frac{R_2}{1,5k\Omega} (V_1 - V_2)$$

2.  $R_2$  erresistentziaren balioa aurkitu, AmpOp 1-en irteera-tentsioa 10 V izateko labaren temperatura  $200^\circ\text{C}$  denean.

$$R_2 = 7,5 \text{ k}\Omega$$

$$V_{01} = 10 \frac{\text{mV}}{\text{^\circ C}} \cdot 200^\circ\text{C} \cdot \frac{R_2}{1,5k\Omega} = 10 \text{ V}$$

$$R_2 = 7,5 \text{ k}\Omega$$

3. Zein da zirkuituak neurtu ahal duen temperaturaren balio maximoa, Amp Op 1 asetasunean sartu gabe?

$$T_{max} = 300^\circ\text{C}$$

$$V_{01} = 10 \frac{\text{mV}}{\text{^\circ C}} \cdot T_{max} \cdot 5 = 15 \text{ V}$$

$$T_{max} = 300^\circ\text{C}$$

4. Adierazi  $R_4$  erresistentziaren balioa, LED diodoa pizteko labaren temperatura  $150^\circ\text{C}$ -ra heltzen denean.

$$R_4 = 10 \text{ k}\Omega$$

$$V_{01} \Big|_{T=150^\circ\text{C}} = 7,5 \text{ V} = V_- = 15 \frac{R_4}{10k\Omega + R_4}$$

$$R_4 = 10 \text{ k}\Omega$$


5. Zein balio hartu ahal du  $V_{02}$  seinaleak, zirkuituaren funtzionamenduan?

$$T < 150^\circ\text{C} \rightarrow V_{02} = 0 \text{ V}$$

$$T > 150^\circ\text{C} \rightarrow V_{02} = V_{cc} = 15 \text{ V}$$

### 3. PROBLEMA (2 puntu)

Ondoko irudian agertzen den zirkuitu sekuentziala kontuan hartuta:



- Adierazi biegonkorren sarreren adierazpen logikoak,  $Q_0, Q_1, Q_2$  eta  $Q_3$  aldagai logikoen funtzio gisa.

$$T_3 = \bar{Q}_1 + \bar{Q}_2 \quad T_2 = Q_0 \cdot Q_1 \quad T_1 = Q_0 \cdot \bar{Q}_2 \quad T_0 = \bar{Q}_0 + Q_1$$

- Konektatu biegonkor guztien R (reset) eta S (set) sarrera **guztiak**, kontadorea 0000 egoeran ( $Q_3, Q_2, Q_1, Q_0$ ) hasieratzeko.

- Aurreko adierazpenetatik hasita, ondoko taula bete:

| Unea | $Q_3$ | $Q_2$ | $Q_1$ | $Q_0$ | $T_3$ | $T_2$ | $T_1$ | $T_0$ |    |
|------|-------|-------|-------|-------|-------|-------|-------|-------|----|
| 0    | 0     | 0     | 0     | 0     | 1     | 0     | 0     | 1     | 0  |
| 1    | 1     | 0     | 0     | 1     | 1     | 0     | 1     | 0     | 9  |
| 2    | 0     | 0     | 1     | 1     | 1     | 1     | 1     | 1     | 3  |
| 3    | 1     | 1     | 0     | 0     | 1     | 0     | 0     | 1     | 12 |
| 4    | 0     | 1     | 0     | 1     | 1     | 0     | 0     | 0     | 5  |
| 5    | 1     | 1     | 0     | 1     | 1     | 0     | 0     | 0     | 13 |
| 6    | 0     | 1     | 0     | 1     | 1     | 0     | 0     | 0     | 5  |
| 7    | 1     | 1     | 0     | 1     | 1     | 0     | 0     | 0     | 13 |
| 8    | 0     | 1     | 0     | 1     | 1     | 0     | 0     | 0     | 5  |
| 9    | 1     | 1     | 0     | 1     | 1     | 0     | 0     | 0     | 13 |

- $Q_3, Q_2, Q_1$  eta  $Q_0$  irteerek 4 biteko zenbaki bitarra osatzen badute ( $Q_0$  pisu gutxieneko bita da, eta  $Q_3$  pisu handieneko bita da); zein da kontadorearen sekuentzia, zenbaki hamartarretan adierazita?

$$\text{Sekuentzia} = 0, 9, 3, 12, 5, 13, 5, 13, 5, 13, \dots$$

- Zein da kontadorearen modulua?

Modulua = 2 zikloa egonkortzen denean,  
modulua 2 da;  $5 - 13 - 5 - 13 - \dots$